

# BALENTINO txolarrea



**B**alentino pagadi eder batean bizi den txolarrea da. Pagoak oso zuhaitz dotoreak eta altuak dira. Oso poliki hazten badira ere, denbora asko bizitzen dira, eta hirurehun urte har ditzakete! Bere zura oso preziatua da. Balentino harro sentitzen da pagadian jaio zelako, eta ezin du imajinatu beste lekuren batean bizitzen.

Egunero, jaikitzen denean janari bila hasten da bazter guztiak miatzen.

Gorostia izeneko zuhaitz baten fruitua da bere janari nagusia; hauek bolatxo gorri distiratsu batzuk dira, eta osasuntsu irauteko eta egunero hegan egiteko behar duen energia guztia ematen diote.

Aurtengo negua oso gogorra izango da beretzat; izan ere, bere amak hegal bat hautsi du, eta familiako anaia zaharrena denez, berea izango da familia osoari janaria ekartzeko ardura.

Hala, Balentino janari bila atera zen egunero bezala. Goiz horretan dena elurtua azaldu zen, eta bazekien horrela askoz zailagoa izango zuela janaria aurkitzea. Baina izadia oso jakintsua da, eta gorostiaren fruituak gorri-gorriak dira, txoriek urrutitik ere errazago ikusi ahal izateko.

Alabaina, Balentino hainbat aldiz harat-honat hegan ibili zen baina ez zuen ezer aurkitu. Ezta bolatxo gorrien arrastorik ere!

Oso kezkatuta, habiara itzuli zen. Bere amak ezer gabe azaldu zela ikusitakoan, galdegin zion:

- Zer gertatu da Balentino? Ez al duzu jateko ezer aurkitu?
- Ez ama, ez dakit zer gertatu den baina ez dago fruitu bakar bat ere basoan. Oraintxe joango nahiz Manuela inurria ikustera, ziur bainago berak jakingo duela zer gertatu den.



**M**anuela inurriak udazken osoa zeraman janaria metatzen, eta laguntza eskaini zien:

- Ez kezkatu Balentino, nik lagunduko dizuet; uste dut nik jasota daukadan janariarekin guztiok elika gaitzkeela ondo neurtzen baldin badugu. Ez dakit zer gertatuko zen, baina azken egun hauetan herriko jende asko etorri da pagadi horretara.
- Honek ez du itxura onik. Zer gertatzen den ikustea izango da egokiena, esan zuen Balentinok. Igo zaitez Manuela!

Manuela Balentinoren gainera igo zen, eta elkarrekin herrira joan ziren hegana.

Urtero bezala, Gabonetan koloretako argiak ipini zituzten kaleetan, eta pinu handi bat plazaren erdian, plaza apaintzeko. Neska-mutil guztiek elurrarekin jolasten zuten, eta panpina handi bat ere egin zuten. Baina zerbaitek eman zion atentzioa Balentinori, eta teilatu batean pausatu zen, ikusitakoak harri eta zur utzi baitzuen.

Plazako etxe guztiek gorosti-sortak zeuzkaten zintzilik euren leihoetan! Hor zegoen bere familia guztiaren janaria, etxe horiek apaintzen. Nori bururatu ote zitzaion horrelako zerbait egitea?

Balentinok jende askori entzun zion herria ez zela inoiz Gabon horietan bezain polita egon, eta guztiak liluraturik geratzen zirela plazako dekorazioaren edertasuna ikusita. Alabaina, Balentinoren familia osoa janaririk gabe geratu zen negu guztirako.

- Hau ezin da horrela geratu, pentsatu zuen Balentinok, herrian jakin behar dute egin duten kaltea, zeren horrela ez bada, datorren urtean gauza bera egingo dute, hau da, gorosti adarrak moztuko dituzte eta nire familia eta ni janaririk gabe geratuko gara berriro.





**B**alentinok jakin zuen alkatea izan zela, goiz batean herritik paseoan zebilela, etxe batean gorosti-sortak ikusi zituen, eta guztiek zekiten etxe hori zela ondoen apaindutakoa. Hala bada, guztiak gorostiarekin apaintzen baziren, herria askoz politagoa egongo zela eta bisitari gehiago erakarriko zituela pentsatu zuen.

Horregatik, pagadira joan ziren denak, beren etxeko ateak eta leihoak gorostiarekin apaintzeko.

Zalantzarik gabe, ez ziren konturatzen basoari eta han bizi diren animaliei egiten zieten kaltea.

Basora itzultitakoan, Manuelak eta Balentinok ikusitakoa kontatu zioten familiari, eta guztien artean konponbideak bilatzen hasi ziren:

- Beste txori batzuekin hitz egin dut –esan zuen Balentinok– eta haiek janari bila herrira joatea erabaki dute, baina ni txikia naiz eta ezin dut oso urrutira joan, zeren zama asko badaramat gainean ezin dut hegan egin, eta ez dut familia guztiari eguneroko janaria garraiatzen ibiltzeko behar bezainbeste indar ere, herria oso urruti dagoelako.
- Badakit zer egingo dugun –esan zuen Manuelak–, Angelari esango diozu ikusitako guztia.
- Nor da Angela? –galdegin zion Balentinok.
- Animaliak asko maite dituen neska bat da Angela, eta beti ematen digu janaria; elizaren ondoan dagoen etxean bizi da. Bera izango da gertatutakoaren berri guztiei emango diena.
- Baina ni txolarre bat naiz, Manuela, ezin dut hurrekin hitz egin; ez dute ulertzen gure hizkuntza.

- Lasai Balentino, badago hori egiteko modu bat.
- Nola, ordea?
- Beren ametsetan sartuz.
- Euren ametsetan?
- Bai. Gaur gauean bere logelan sartu beharko duzu. Oso erraza da; leiho bat dago bere etxeko ganbaran, eta handik sartu eta bere oheraino iritsi ahal izango zara. Aldamenean jarri, eta gertatutako guztia kontatuko diozu belarrira.

Horrela egin zuen Balentinok, eta hurrengo goizean Angela ikaratuta esnatu zen. Eskailerak lasterka jaitsi, eta arnasestuka sartu zen sukaldean:

- Zer gertatzen zaizu Angela? –galdegin zion amak.
- Zerbait kontatu behar dizut ama. Oso itsusia egin dugun zerbait.

Angelak bere amarekin hitz egin zuen, eta biak herriko alkatearengana joan ziren albistearen berri emateko.

- Benetan esaten al duzu pagadiko hegazti asko janaririk gabe utzi ditugula? Ez nuen uste horrelako zerbaitek modu horretan kaltetuko zituenik. Eta, zer egin dezakegu orain? –esan zuen.
- Beharbada beranduegi izango da negu honetarako konponbideak bilatzeko –esan zuen Angelaren amak– baina, hemendik aurrera basoa zaindu eta errespetatu behar dugu bertan bizi direnen eta gu guztion onerako.

Manuela inurriak lagundu zion negua igarotzen Balentinori eta bere familiari, eta herriko guztiek ikasi zuten, jardun aurretik, besteei kalte egin ote diezaiekegun pentsatzen.



